



Kaixo gurasook!

Euskara funtsezkoa da gure seme-alaben etorkizunean, eta argi izan behar dugu gurasoen inplikazioa ezinbestekoa dela gure seme-alabak euskaraz bizi ahal izateko. Gainera, eurei esker geuk ere jasoko dugu euskara.

Jakin badakigu bide hori beti ez dela erraza izaten. Euskaldunak izan arren, batzuetan kezka bat baino gehiago sortuko zaigu eta oztopoak eta zailtasunak ere aurkituko ditugu bide horretan. Horiei aurre egiteko, Euskara Zerbitzuak zuontzat lagungarri izango den [www.emangiltza.com](http://www.emangiltza.com) web-orria dauka mar-txan. Atari horretan sartuz gero, besteak beste honakoak aurkituko dituzue:

**GILTZAK:** Gurasoentzako aholkuak, gomendioak eta jolasak.

**TESTIGANTZAK:** Zuon egoeran dauden beste guraso batzuen testigantzak.

**TRESNAK:** Hiztegi, ipuin, joko, marrazki bizidunen... estekak eta argitalpenak: Nola lagundu etxeko lanak egiten, Euskarazko produktuen katalogoa, Aita-ama eskolako lanak nik egin behar ditut, Gero eta gazte-lania gehiago erabiltzen dute lagunartean...

**AHOLKUA ESKATU:** Beste guraso batzuek egindako galderak eta erantzunak aurkituko dituzue. Baina zalantzaren bat argitu barik geratu bazaizue, hemen galdetu ahalko duzue.

**SARIAK:** Atal horretan dagoen inkesta betez gero, familiarekin ondo pasatzeko sariak irabaziko dituzue.

**ANTOLATZAILEAK:** Zuon eskualdeko Euskara Zerbitzuari buruzko informazioa aurkituko duzue.

Horrez gain, Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskara sustatzeko ekintza ezberdinak antolatzen ditu. Etorri zaitezte eta behar duzuen laguntza eta informazioa eskainiko dizuegu.

Gogo eta ilusio handiz diseinatu eta berritu dugun web-orri hau, zuen seme-alabei euskara transmititzeko erabilgarria izango delakoan,

Agur bero bat

Lander Ajarza Zallo  
Txorierriko Mankomunitateburu